



HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikasturtea: 2019-2020

**2019-2020 DENBORALDI ERDIAK EMAKUMEZKO
FUTBOLARIENGAN SORTUTAKO EGOKITZAPEN
FISIKOEN ANALISIA**

EGILEA: Asier Intxaurre Gorostiza

ZUZENDARIA: Ibai Garcia Tabar

Data, 2020ko ekainak 1

“The beautiful thing about learning is nobody can take it away from you.”

B. B. King

AURKIBIDEA

Aitorpena.....	4
Eskerrak	5
Laburpena	6
Resumen.....	8
Abstract	10
Sarrera.....	12
Metodologia eta materiala	22
1. Partehartzaileak.....	22
2. Ikerketa diseinua	22
3. Testatze prozedura.....	23
➤ Drop Jump, ContraMovement Jump eta Cross-over Hop Test	24
➤ Intermittent Fitness Test	27
4. Datuen bilketa	28
5. Estatistika.....	29
Emaitzak.....	30
➤ Behe gorputz ataleko indar indikatzaileen emaitzak	30
➤ Erresistentzia atalaren emaitzak.....	37
Eztabaida.....	39
➤ Behe gorputz ataleko indar adierazleak ardatz bertikalean	39
➤ Behe gorputz ataleko indar adierazleak ardatz horizontalean.....	40
➤ Behe gorputz ataleko indar adierazleen lateralitateak	41
➤ Gaitasun aerobikoa eta minutuen eragina.....	42
Mugak	44
Konklusioak eta Aplikagarritasun Praktikoak	45
Eranskinak	46
Bibliografia.....	47

Aitorpena

Gradu Amaierako Lan hau aukeratzearen eta aurrera eramaterako arrazoiak anitzak dira; hainbat faktoreengatik izan da. Lehenik, nik futbolaren inguruan dudak jakinduria zabaltzeko asmoa da. Nire bizitza betidanik futbolari lotua egon da, eta horrekin batera etorkizunera begira ditudan intentzioak kontuan hartuz, talde kirol honi buruz gehiago aztertzea ezin bestekoa zela iruditu zitzaidan. Lan honekin, futbolarekiko ikasitakoa oso zabala da, bai nire eguneroko lana haratago eramateko zein, kirol honetan gertatzen diren gauzen zergatiak ulertzeko eta interesatzeko baliagarria izan zait.

Bigarrenik, emakumezko futbolaren inguruan dagoen literatura zientifiko urrian nire harrizkoa jartzeko aukera edukitzeagatik. Zoritxarrez, oraindik ere, nahiz eta izugarritzko aurrera pausuak egin diren asken urteetan, emakumezko futbolen inguruan oso gutxi ikertu da, eta horren adierazle, lan hau burutzeko behar izan nituen artikulu eskasak dira; hau da, bilaketa lana oso konplexua izan zen, nahiz eta futbola izanik.

Horrez gain, nire praktikekin loturiko lana baita. Urte osoan zehar Euskal Herriko emakumezko futbol talde garrantzitsu baten filialean parte hartzeko aukera izan nuen, bai ikasketetako arlo praktikoa zein teorikoa batzeko aukera paregabea zela uste nuen, eta hala egin nuen. Honekin esan nahi dudana, lan honen atzean, beste motatako lan izugarria baitago.

Hau dena borobiltzeko, abuztuan, kurtsoa hasi baino lehen, ikerketa datuak bilatzen egon nintzen Ibai Garcia Tabar eta beste ikertzaile batzuekin batera (Aitor Iturricastillo, Igor Setuain, Eder Bikandi, etab.) bi egun eta talde ezberdinekin.

Gainera, datuen bilketekin jarraituz, Israel Alvarezekin (taldeko prestatzaile fisikoa) harreman zuzena izan dut taldearen datuak biltzeko. Emaitzen estatistika eta grafikoak nire kabuz eginak ziren, hori lortzeko, nire kabuz ere baliabideak erabiltzeko gaitasuna garatu izan dut lan honi esker.

Eskerrak

Gradu Amaierako Lan hau aurrera eramaten bultzatu didaten guztiei. Lehenik eta behin nire tutoreari, Ibai Garciari, futbol munduan gehiago murgiltzeko aukera eskaini eta etorkizunera begira motibazio berriak pizteagatik; eta bai Eder Bikandi zein Igor Setuaineri lan honen hasieratik laguntzeko prest egoteagatik. Beste aldetik, Athletic Club-ari eta horren barne dauden tekniko-jokalari guztiei, GRALa eta praktikak bateratzeko eta goi errendimenduko futbola ezagutzeko aukera izateagatik; eta horrekin batera emakumezkoen futbola askoz hobeto ezagutzeagatik. Horren barne, Emakumezkoen Athletic B talde osoari; alde batetik teknikariak: Israel Álvarez (prestatzaile fisikoa), Iraia Iturregi (entrenatzailea), Jon Gaizka (atezainen entrenatzailea), David Rincón (psikologoa) eta Jokin Zamorano (delegatua); eta bestetik jokalar guztiei laguntzeko prest eta hasieratik beso zabalik hartu nindutelako.

Laburpena

Helburua: Gradu Amaierako Lan honen helburua, denboraldi erdi batek emakumezko futbol jokariengan duen eragin fisikoa aztertzea zen.

Metodologia: Hamasei elitezko emakume futbol jokalaria, bigarren mailan “Reto Iberdrola Norte” ligan jokatzen zutenak parte hartu zuten. Horretarako aurrendenboraldian egindako testak (T1), gabonetako geldialdian eginiko erresistentzia testa ($T2_{\text{Erresistentzia}}$) eta otsailean eginiko indar adierazleen testak ($T2_{\text{Indarra}}$) kontuan hartu ziren. Aipatutako moduan, testak bi multzotan banatu genituen: a) behe gorputz ataleko potentzia adierazle testak, jauzi testak zirenak, Vertical Unilateral Drop Jump (VUDJ), Vertical Unilateral CounterMovement Jump (VUCMJ) eta Cross-over Hop Test (CHT); b) erresistentzia testa, Buchheit-en 30-15_{IFT}-a egin zen. Entrenamendu zein jokatutako partiduen minutuak 21 astez erregistratu ziren, aurrendenboraldiko 6 aste eta 15 aste denboraldian zehar. Guztira, 63.5 ± 29.5 entrenamendu burutu zituzten, gutxienak 34 eta gehienak 93, eta 20 partidu burutu zituzten, aurrendenboraldi garaian, lagun arteko 6 eta 14 partidu ofizial. Horretaz gain, aurrendenboralditik gabonetako geldialdiraino entrenatutako zein jokatutako minutu kopurua kontuan hartu zen, ondoren minutu horiek $T2_{\text{Erresistentzia}}$ n izango zituzkeen eraginak aztertu genituen. Beraz, lan honen barne bi ikerketa daude: a) T1 eta $T2_{\text{Indarra}}$ -ren emaitzak aztertzea, eta b) Entrenatutako eta jokatutako minutu kopuruak eta T1 eta $T2_{\text{Erresistentzia}}$ dituzten eraginak aztertzea.

Emaitzak: Emaitzei erreparatuz; DJ dominantea (Dom) 1 eta DJ ez dominantea (No Dom) 1-en ($r=,922$; $n=8$; $SEE=,818$); eta DJ Dom 2 eta DJ No Dom 2 ($r=,939$; $n=8$; $SEE=,914$) izanik. Testen arteko aldaketen ehunekoak ($\Delta \%$) ikusiz, DJ ($r=,934$; $n=8$; $SEE=1,017$), CMJ ($r=,728$; $n=8$; $SEE=9,782$) edota CHT ($r=,898$; $n=7$; $SEE=5,155$). Gehitu beharra dago, $\Delta \%$ CHT Dom eta $\Delta \%$ CMJ Dom artean korrelazio bat dago ($r=,811$; $n=6$; $SEE=2,942$). CMJ Dom 1; eta erresistentzia testean lortutako abiadura maximoa (VIFT), VIFT 1aren arteko harreman bat zegoen ($r= ,836$; $n=5$; $SEE=1,32$). CMJ 1 eta entrenaturiko zein jokatutako batz besteko minutuen (Prom Mins M/T) artean harremana ikusi genuen ($r=,656$; $n=6$; $SEE=1,81$). Azkenik, erresistentzia alorrean zentratuz, entrenaturiko edota jokatutako minutuen eta VIFT aztertu genituen. 30-15_{IFT} testetan, hobekuntza bat egon zen, bi testen artean korrelazio esanguratsu bat egonik ($r=,646$; $n=15$; $SEE=,933$). Batz bestez jokatutako partidu minutuak (Prom Mins M) gero eta gehiago jokatu zutenek, beraien Δ VIFT gehiago hobetu zuten; harreman txiki bat zegoelako Δ VIFT eta Prom Mins M-aren artean ($r=,503$; $n=13$; $SEE=10,657$). VIFT 1 eta $\Delta \%$ VIFT artean harremana zegoen ($r= ,573$; $n=13$; $SEE=,88$). Emaitzekin bukatzeko, VIFT 2 eta Prom mins M-en artean erlazioa zegoen ($r= ,485$; $n=13$; $SEE=,887$).

Konklusioak: Belaun estentsiogileen indarra mantendu edo okertzen da denboraldiak sortzen duen nekea, indar indibidualizatu gutxi egiteagatik. Entrenatutako eta jokaturako minutuak eragin positiboa izan zuten jokalarien gaitasun aerobikoan. Gaitasun aerobikoaren garrantzia emakumezko futbolean VIFT vs jokaturako minutuen arteko harremanak azpimarratzen ditu. Indarra denboraldian hobetzeko edo ez galtzeko, eta gaitasun aerobikoa entrenamendu gehi partiduen eraginarekin hobetzen ez dutenentzat, lan inespezifiko ziriak sartzea gomendagarria izango litzake. Hala ere, hauen intentsitate eta bolumen optimoa ezartzeko emakumezko futbolean ikerketa gehiago behar dira.

Hitz gakoak: emakumezko futbola, denboraldi erdia, aurrendenboraldia, jauziak, erresistentzia

Resumen

Objetivo: El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado fue el de analizar una media temporada de fútbol que efectos (físicos) produce a jugadoras de fútbol.

Metodología: Participaron dieciséis jugadoras de elite, de la segunda división femenina "Reto Iberdrola Norte". Se registraron los minutos entrenados como jugados durante 21 semanas, de ellas 6 fueron parte de la pretemporada y 15 de temporada. En total se completaron 63.5 ± 29.5 entrenamientos, con 34 entrenamientos la que menos y 93 la que más; se disputaron 20 partidos, en pretemporada 6 y durante la temporada 14 partidos oficiales. Para ello, se tuvieron en cuenta los test de la pretemporada (T1), test de resistencia del parón de navidades ($T2_{Resistencia}$) y los test de fuerza hechos en febrero ($T2_{Fuerza}$). Por eso, los test podríamos dividirlos en dos grupos a) indicadores de potencia del miembro inferior, test de saltos Vertical Unilateral Drop Jump (VUDJ), Vertical Unilateral CounterMovement Jump (VUCMJ) eta Cross-over Hop Test (CHT); b) test aeróbico, el 30-15_{IFT} de Buchheit. Además, los minutos entrenados como jugados desde la pretemporada hasta el parón navideño, se relacionaron con el $T2_{Resistencia}$ analizando los efectos de los minutos con la capacidad aeróbica. Por ello, en este trabajo se encuentran dos estudios: a) analizar el efecto del entrenamiento realizado entre T1 y $T2_{Fuerza}$, para valorar los efectos de la fuerza, y b) analizar los efectos del entrenamiento entre T1 y $T2_{Resistencia}$ para los valores de resistencia, así como, las relaciones entre los minutos entrenados y jugados con T1 y $T2_{Resistencia}$.

Resultados: Centrándonos en los resultados, DJ dominante 1 (DJ Dom 1) y DJ no dominante (DJ No Dom 1) ($r=,922$; $n=8$; $SEE=,818$); DJ Dom 2 y DJ No Dom 2 ($r=,939$; $n=8$; $SEE=,914$) fueron los datos obtenidos. Observando los porcentajes de cambio entre test ($\Delta \%$), DJ ($r=,934$; $n=8$; $SEE=1,017$), CMJ ($r=,728$; $n=8$; $SEE=9,782$) incluso CHT ($r=,898$; $n=7$; $SEE=5,155$). Deberíamos de añadir que, entre $\Delta \%$ CHT Dom y $\Delta \%$ CMJ Dom hay una correlación significativa ($r=,811$; $n=6$; $SEE=2,942$). Entre CMJ Dom 1; y la velocidad máxima obtenida en el test de resistencia (VIFT), VIFT 1 se encontró una relación ($r=,836$; $n=5$; $SEE=1,32$). Entre CMJ Dom 1 y el promedio de minutos tanto entrenados como jugados (Prom Mins M/T) hubo una relación ($r=,656$; $n=6$; $SEE=1,81$). A lo que a la capacidad aeróbica respecta, encontramos relaciones entre los minutos jugados con VIFT en el 30-15_{IFT}. Se encontró una relación entre los test de resistencia ($r=,646$; $n=15$; $SEE=,933$). De promedio, las jugadoras que más minutos de partidos jugaron (Prom Mins M) mejoraron más su Δ VIFT, habiendo una correlación entre Δ VIFT y el Prom Mins M ($r=,503$; $n=13$; $SEE=10,657$). También se encontró una relación entre VIFT 1 y $\Delta \%$ VIFT ($r=,573$; $n=13$; $SEE=,88$). Para acabar con los resultados, hubo relación entre VIFT 2 y Prom Mins M ($r=,485$; $n=13$; $SEE=,887$).

Conclusiones: La fuerza de los extensores de rodilla se mantuvo o se empeoró durante la primera parte de la temporada debido a la fatiga, falta especificidad en los entrenamientos. Los minutos entrenados y jugados tuvieron efecto positivo en la capacidad aeróbica. La importancia de la capacidad aeróbica en las jugadoras subraya la relación entre VIFT vs minutos jugados. Para mantener o mejorar la fuerza durante la temporada y que como efecto de los minutos jugados no mejoran la capacidad aeróbica, meter cuñas de trabajo inespecífico será recomendable. Aun así, tanto el volumen como intensidad optima de este trabajo, está por investigar en futbolistas femeninas.

Palabras clave: futbol femenino, media temporada, pretemporada, saltos, resistencia

Abstract

Aim: The aim of this study was to analyse the physical effects of a soccer half-season in female soccer players.

Methodology: Sixteen elite soccer players, from the female second league “Reto Iberdrola Norte”, participated. Trained and played minutes were registered during 21 training weeks, of which 6 were part of the preseason and 15 of the seasons. Totally 63.5 ± 29.5 training were performed, 34 trainings the less trained player and 94 the most trained player; 20 matches were played, in preseason 6 and 14 official matches during the season. For these, some test was performed in the preseason (T1), endurance test in Christmas break (T2_{Endurance}) and on February strength test (T2_{Strength}). Thus, these tests can be divided in two groups: a) lower limb power, jump and hop test as Vertical Unilateral Drop Jump (VUDJ), Vertical Unilateral CounterMovement Jump (VUCMJ) and Cross-over Hop Test (CHT); b) endurance test, Buchheit’s 30-15 Intermittent Fitness Test (30-15_{IFT}). Also, trained and played minutes were registered from the first training in the preseason to the last one before Christmas break, that were related with T2_{Endurance} analysing the effect of the minutes in the aerobic capacity. So, in this work are two different studies: a) to analyse the relationships between T1 and T2_{Strength} and b) to analyse the relationships between trained and played minutes with T1 and T2_{Endurance}.

Results: Focusing on results, dominant DJ 1 (DJ Dom 1) and no dominant DJ 1 (DJ No Dom1) ($r=,922$; $n=8$; $SEE=,818$); DJ Dom 2 and DJ No Dom 2 ($r=,939$; $n=8$; $SEE=,914$) were data obtained. Observing the percentual change (Δ %) between DJ tests ($r=,934$; $n=8$; $SEE=1,017$), CMJ ($r=,728$; $n=8$; $SEE=9,782$) also CHT ($r=,898$; $n=7$; $SEE=5,155$). Should me added, between Δ % CHT Dom y Δ % CMJ Dom was a significant correlation ($r=,811$; $n=6$; $SEE=2,942$). Among CMJ Dom 1; and maximal speed obtained (VIFT) in endurance test, VIFT 1 a relation was founded ($r= ,836$; $n=5$; $SEE=1,32$). CMJ Dom 1 and the mean of minutes trained and played (Prom Mins M/T) was correlated ($r=,656$; $n=6$; $SEE=1,81$). Also, a relation was founded between endurance tests ($r=,646$; $n=15$; $SEE=,933$). In relation to aerobic capacity, we founded relation between played minutes with maximal speed achieved (VIFT) on the 30-15IFT. On average, those players who played more (Prom Mins M), their endurance was improved, with a correlation between Δ VIFT and Prom Mins M ($r=,503$; $n=13$; $SEE=10,657$). A relation among VIFT 1 and Δ % VIFT ($r= ,573$; $n=13$; $SEE=,88$). To conclude with results, we founded a correlation between VIFT 2 and Prom Mins M ($r= ,485$; $n=13$; $SEE=,887$).

Conclusions: Knee extensor strength was maintained or decline during the first half of the season because of fatigue, training specificity scarcity. The trained and played minutes had positive effects on aerobic ability. The importance of aerobic ability on soccer players underline the relation between VIFT and played minutes. For maintaining or improve strength values during the season and as effect of played minutes those players who do not improve their aerobic ability, putting into their training planification some dose of non-specific work is recommended. Even so, as optimal volume as intensity of these work is pending investigate in female soccer players.

Key words: female soccer, half-season, preseason, jumps, endurance

Sarrera

Futbola gaur egun gehien praktikatzen den kirola da eta maila ezberdinetako gizon, emakume, haur zein helduek jokatzen dute. FIFAk bere barne dituen asoziazioei eginiko inkesta baten oinarrituz, 265 miloi pertsonak jokatzen dute modu federatu batean; eta zifra hori 270 miloi pertsonetara igotzen da entrenatzaileak eta teknikoak kontatzen baditugu (Kunz, 2007). Ikus daitekenez, hainbeste kirolari praktikatzen duen kirola denez, kirol honen eskakizun fisikoak identifikatu eta ezagutzea oso garrantzitsua da. Izan ere, eskola futbola, aisialdiko futbola, osasunerako futbola (Zouhal et al., 2020), edota errendimenduko futbola helburu desberdinak lortzera bideraturik dago. Jokalarien maila eta futbola praktikatzearen helburua zein den kontuan hartuz, hauen eskakizun fisikoak aldatzen joango dira.

Talde kirol honen exijentzia fisikoak aztertuz, intentsitate altuko kirol intermitentea dela esan dezakegu, jokoaren iraupena dela kausa metabolismo aerobikoa da nagusi; baina halan eta guztiz ere metabolismo anaerobikoak hartzen du parte. Beraz esan genezake bi energia iturri horien arteko nahasketa ematen dela (Osgnach et al., 2010).

Lan anaerobikoarekin hasiz, ekintza anaerobiko ugari ematen dira partidu bakoitzean; jauziak, jaurtiketak, sarrerak, norabide aldaketak eta baloia defendatzailearengandik defendatzeko mugimendu gogorrak. Orokorrean; 10-20 sprint; 70 segundoro intentsitate altuko korrikaldia; 15 sarrera; 10 buruzko erremateak; 50 erregate; eta 30 pase zein norabide aldaketak edota defendatzailearengandik defendatzeko mugimendu gogorrak (Buchheit, 2019). Mugimendu edo ekintza guzti hauek burutzeko, energia anaerobikoaren askapen egokia ezinbestekoa da sprint azkarrena edo jauzi altuena egiteko (Stølen et al., 2005). Horrez gain, nahiz eta bakarrik partiduen distantzia totalaren %1-11 sistema anaerobikoaren kontribuzioa izan (Hoff & Helgerud, 2004), gaitasun anaerobikoak izugarritzko garrantzia du futbolean. Izan ere, futbolean ematen diren egoera erabakigarrietan (golak sartzerakoan) indar eta abiadurazko ekintzak (ekintza anaerobikoak) nagusitzen dira (Faude et al., 2012). Honekin jarraituz, Faude eta kolaboratzaileek (2012) baieztatzen dute sprint motzetako ekintzek (10 m-takoak) goi errendimenduko futbol partiduak irabazteko erabakigarriak izan daitezkeela. Ekintza anaerobiko hauek burutzeko behe gorputzeko atalak indartuak edukitzea beharrezkoa da (Meylan et al., 2008). Haugen eta kolaboratzaileak 2013an ikertu zuten moduan, goi mailako jokalariek altuago saltatzen zuten behe mailako jokalariekin alderatuz. Horretaz gain, abiadura eta potentzia ezaugarriak jokalarien kokapenarekin harreman estua zuten, esanik aurrelariak jokalaririk azkarrenak zirela, defendatzaile, erdilari eta atezainen artean (Haugen et al., 2013).

Indarraren arloan murgilduz, Meylan-ek (2008) idatzi zuen behe gorputz atala indartua edukitzea garrantzizkoa dela (Meylan et al., 2008), ordea, Julio Tousek esan zuen, indarra motrizitatearen genesisia eta indarra oinarritzko gaitasun fisiko bakarra dela, beste gaitasunak indarraren adierazpenak izanik (Tous, 2017). Hau dena kontuan hartuz, esan genezake indarra, futboleko ematen den exigentzia fisikorik garrantzitsuenetarikoa dela; Stølen et al. (2005), zehazten zuten moduan, indarra eta potentzia (hau da, aplikatzen den indarra edo indar aplikagarria) erresistentzia bezain garrantzitsua delako. Indar/potentzia maximo hau erlazionatuta dago jauzi egiteko gaitasunarekin eta 30m-tako sprinten emaitzekin (Schmidtbleicher, 1992; Hoff et al., 2001). Beraz, gihar espezifikoaren indarra maximoa hobetuz, indar aplikagarritasuna (indar erlatiboa eta potentzia) hobetzeko joera dago; 1RM, azelerazioa eta norabide aldaketaren arteko erlazio adierazgarria egonda (Hoff & Almasbackk, 1995); hau da, indar maximoa hobetuz, azeleratzeko edota norabidez aldatzerako abiadura altuagoa izango da.

Lan anaerobikoa alde batera utziz gizonezkoen erresistentzia aerobikoaren atalean zentratuko gara. Beraien erresistentzia aerobikoaren ikuspuntutik begira, goi mailako gizonezko jokalariek 90 minututan zehar 10-12 km betetzen dituzte eta “maximal lactate steady state” (MLSS) edo bere laktato atal estimazioetatik (adib. atalasa anaerobikotik) hurbileko intentsitatean (bihotz maiztasun maximoaren (BM_{max}) %80-90) (Helgerud et al., 2001; McMillan et al., 2005) Metabolismo aerobikotik partidu osoko %75-90 energia gastua lortzen da (Bangsbo, 1994; Osgnach et al., 2010). Stølen-ek (2005) aztertu zuen moduan, gizon futbolari edota mutiko gazte futbolarien arteko VO_{2max}-ean desberdintasunak daude; gizonezkoek 50-75 ml/kg/min, eta gazteek <60 ml/kg/min izan ohi dute errebisio zientifiko horren aburuz. VO_{2max} baloreak, jokalariaren gaitasun aerobikoaren garrantzia zehazten ditu (Stølen et al., 2005). Hortaz, VO_{2max} ariketaren fisiologiaren arloan ematen den aldagai fisiologikoetariko bat da, eta maiz erabiltzen da erresistentzia aerobikoa neurtzeko, baloratzeko, monitorizatzeko, gaitasun aerobikoan aldaketak aztertzeko eta horrekin batera, jokalarien ariketa aerobikoak modu indibidualean programatzeko (Ozmen et al., 2017). Jokalarien erresistentzia aerobikoa hobetuz, beraien errendimendua hobetzeko joera egon daiteke, beraiek egin dezaketen distantzia, lan intentsitate maila, sprint kopurua eta baloiarekin egindako ekintza kopuruak handituz, norbegiako ikerlari talde batek demostratu zuen bezala (Helgerud et al., 2001). Sistema kardiobaskularra gai izan beharko da oxigeno kopuru nahikoa giharretara eramatea, 90 minutuz MLSS inguruko intentsitatea mantendu dezaten (Ozmen et al., 2017). Beste alde batetik uste da gaitasun aerobiko maila minimo bat behar dela goi mailetan jokatzeko (Bangsbo, 1994). Izan ere, jokalarien gaitasun aerobikoak jokalarien maila ezberdinen artean diskriminatzeko ere balio du (Mohr et al.,

2003); adibide praktiko bat jarritz, VO₂max balore altuena edukiteak ez du esan nahi Frantziako Tour-a irabaziko dugunik, baina Frantziako Tour-a irabazteko VO₂max balore altu bat edukitzea ezin bestekoa da (Coyle, 2005).

Emakumezko futbolari dagokionez, ospea eta profesionalismoa nabari hazi da azken urteetan, elitezko jokalaria profesionalak edo semi-profesionalak izanik, baina ez da betiko kontu bat. Carmen Diezek Gipuzkoako Foru Aldundiko adibidea azaldu zuen bere artikuluan; 1990. urtean eskola kirola praktikan jarri zen momentuan, ikasleen %30a inguru parte hartu zuen bakarrik, eta 2016an aldiz, %80 ikasleek parte hartu zuten %267-ko igoera bat edukiz. Txosten horretan, generoen arteko parte hartzearen desberdintasuna murriztu zela adieraten da, 1990etan %30 horretatik %20a neskak ziren eta 2016an ordea, %80 horretatik %42 neskak ziren (Diez, 2017). Horrez gain, ikus daitekeen moduan, mutilek federazioaren zenbait kategoriatan jokatzeko aukera daukate; adinaren arabera sailkatua dena (benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak, gazteak, etab.) eta 8 urtekin hasi eta 18 urtera arte sailkaturik daude. Aldiz, nesken kasuan, lehen (laurogeiko hamarkadan sortu) kategoria bakarria zegoen, 13 urte zituen neska batek 28 urte zituen beste neska baten kontra jokatzeko egoera sor zitekeen. Baina, urteak pasa ahala ikusi da hori zertxobait aldatu dela benjaminen, kimuen eta haurren kategoriak sortuz (Diez, 2017).

UEFAk 2017an bere web gunean emakumezkoen futbolak jasan dituen aldaketak, partehartzaileei dagokionez, argitaratu zituen, hurrengo datu hauek erregistratuz: 2016an 1,270 milioi jokalaritik 2017an 1,365 milioi jokalaritara federaturik (%7.5-ko igoera urte batean), 2013an 1,680 jokalaria profesional eta semi-profesional egotetik 3,572 jokalaria profesional eta semi-profesional izatera pasatuz 2017an.

Emakumezko jokalariek batz bestez 1000-1500 mugimendu aldaketa egiten dituzte norgehiago ofizial bakoitzean, zeinetatik 700 mugimendu 180 gradutik gorako norabide aldaketak dira (Upton & Ross, 2011). Gaitasun anaerobikoarekin jarraituz, agilitatea ezinbestekoa da azelerazio, deselerazioa eta berrazelerazio egoki baterako (Yap et al., 2000). Emakumezkoen futbolaren esprinten distantzia normalak 5-10 m-tako azelerazioez eginak dira, azelerazio eta abiadura aldaketa ratioa, abiadura maximoa baino garrantzitsua izanik (Milanović et al., 2017).

Ikerketen munduan, alde zurreratik ikerketetan emakumezkoek partidu baten lortzen zituzten batz besteko datuak, 8.47 ± 2.2 km osatzen zituztela eta 14.9 ± 5.6 m-tako sprintak ziren (Davis & Brewer, 1993). Azken aldirian, emakumezkoen futbolaren inguruan hainbat ikerketa berri argitaratu dira. Emakumezkoek gizonenekin alderatuz, distantzia gutxiago egiten dute partiduan zehar (Stølen et al., 2005), ≈ 10 km, zeinetatik 1.53-1.68 km abiadura altuan egiten duten (>18 km/h) (Datson et al., 2014). Datsonek ikertu zuen moduan (2014),

goi errendimenduzko jokalaria eta jokalaria amateurren artean, HSR %28-ko desberdintasuna dago eta %24 sprint gehiago egiten dituzte goi mailakoek. Helgerud-en arabera, gizonezko eta emakumezkoek antzeko kontribuzio sistema aerobiko eta anaerobiko dituzte (Helgerud J, 2002). Emakumezkoen bihotz maiztasuna (BM) partidu baten bitartean, igarri zuen bataz besteko eta bihotz maiztasuna pikoaren (BMpikoa) baloreak, maximoaren $86 \pm 3 \%$ (Datson et al., 2014). Erregistraturik dago emakume futbolarien VO_{2max} 38.6-57.6 mL/kg/min-ko bataz beste dute (Stølen et al., 2005). Aurretik esan bezala, futbol partiduetan eskakizun fisiologikoak ugariak dira, bai aerobiko zein anaerobiko egoeratan. Aldiz, ikerketa berean estimatu zuten %77 – 80 VO_{2max} baloreetan mugitzen zirela, %96-ko VO_{2max} pikoekin (Krustrup et al., 2005). BM eta VO_2 -ko balore hauek proposatzen dute energia aerobikoa beste energia sistemetatik gehien inposatzen dena dela (Datson et al., 2014).

Gizonezkoekin gertatzen den berdina, emakumeen sistema kardiobaskularra gai izan behar da oxigeno kopuru nahikoa giharretara eramatea, partidu oso baten intentsitate altu bat mantendu dezaten (Ozmen et al., 2017); gaitasun aerobiko minimo baten beharra edukiz (Bangsbo, J., 1994). Oraindik ere ikertzeaz dago, ez dakigu gizonezkoekin berdina gertatzen den; jokalarien gaitasun aerobikoak jokalarien maila ezberdinen artean diskriminatzeko ere balio duen ala ez.

Lehiaketetan ematen diren bataz besteko baloreak kontuan hartuz, desberdintasun nabaria dago gizon eta emakumeen artean (*Taula 1*) (Partiduko bataz besteko distantzia, abiadura altuko lasterketako (HSR) distantzia (HSR distantzia), distantzia totalaren HSR %, BMmax %, sprint kopurua, eta distantzia totalaren sprinten % eta VO_{2max}) *taula 1*-an ikus daitekeen moduan).

*Taula 1. Elitezko gizon eta emakumezko futbol jokalariek balore fisiko desberdinak dituzte (Clemente et al., 2019; Datson et al., 2014; Haugen et al., 2014; Krustrup et al., 2005; Milanović et al., 2017; Stølen et al., 2005). *HSR distantzia gizonezkoetan, 19'8-25 km/h eta emakumezkoetan >18 km/h.*

	Lehiaketan						VO2max ml/kg/min
	Distantzia (km)	HSR distantzia (m)*	HSR distantzia (%)	BMmax (%)	Sprint (Nº)	Sprint (%Nº)	
GIZONAK	10-12,0	900	7.5-9.0	80-90	17-81	1-11,0	50-75
EMAKUMEAK	8.47±2.2	1700	28	86±3	26 (9-46)	2,7	38.6-57.6

Futboleko jokatzeko, gutxienezko sasoi fisiko bat beharrezkoa da; beraz, testak erabiliz jokalarien sasoi fisikoa neurtzen ahalbidetuko gaitu. Argi dago jokalariek sasoi fisiko minimo bat eduki behar dutela, eta sasoi fisiko hura ahalik eta hoberen edukitzea garrantzitsua da; bai jokalariek indibidualki zein taldeak arrakasta edukiko dute. Gainera denboraldian zehar hainbat test edo ebaluazio egitea gomendagarria da taldearekiko kontrol bat eraman ahal izateko eta gure eskuhartzea zer nolako eraginak izan dituen taldearengan (Mendez-Villanueva & Buchheit, 2013). Beste hitz batzuekin azalduz, ez baditugu testak egiten, ez dakigu taldeak hobetu duen edo ez, ezta gure lana ongi eginga dagoen.

Gehitzear dago, taldeko jokalariren bat lesionatzen baldin bada, taldearekin bueltatu baino lehen errekonferentzia fase bat egitea beharrezkoa da. Horretaz gain, gainontzeko taldekideekin entrenatzen eta bere sasoi fisiko egoera optimora bueltatzeko, erreferentzia baloreak edukitzea beharrezkak dira (Buckthorpe, 2019).

Lehen esan dugun moduan, testak neurtze tresnak dira eta Stølen eta kolaboratzaileek (2005) aipatu zuten moduan, testak VO_{2max} , atalasa anaerobikoa, lan ekonomia, errendimendu aerobiko maximoa, indarra eta potentzia, eta energia anaerobikoaren produktioen balioak zehazteko erabiliak dira. Beste alde batetik, komentatu zuten moduan desberdintasun nabaria dago zelai testen (ZT) eta laborategi testen (LT) artean (Impellizzeri et al., 2005).

Ikerketa munduan zehazten den moduan, bi test mota daude, LT eta ZT. Impellizzeri eta kolaboratzaileek (2005) azaldu zuten bezala LT oso mugatuak eta garestiak dira, arazo praktikoak dituzte eta zehatzak izateko, kirolariak ohituak egon behar dira LT horretara; eta kirolari asko LT kontrakoak dira (Impellizzeri et al., 2005). Esate baterako, LTetan parte hartzaile batzuk deseroso sentitu daitezke proba maximal batean maskara bat beraien aho aldean jartzen badiete, oxigenoa faltza zaiela sentitzen dutelako (Mezzani, 2017). Arrazoi horregatik ZTak aukera praktikoak dira eta entrenatzaileek maiz erabiltzen dute entrenamendu aerobikoa ebaluatzeko (Impellizzeri et al., 2005).

Hasieratik bereizketa bat egin beharra dago; lehenik behe gorputz ataleko indarra (BGAI) eta ondoren erresistentzia neurtzeko erabiltzen diren test ezberdinak azalduz. BGAI testatzeko modu bat, testatze isoinertzala da, grabitate karga konstante batez egindako mugimendu bezela definitua dena (Murphy & Wilson, 1997) eta gaitasun neuromuskularra testatzeko modurik baliagarriena bezela kontzideratua da (Meylan et al., 2008); batez ere kirol errendimendura begira dagoen espezifikotasun handia dela eta (Gathercole et al., 2015). Horregatik, sprintak (20 m-tako sprint testa) eta jauzi bertikalak, hala nola, Drop


Jump (DJ), edo CounterMovement jump (CMJ) edota jauzi horizontalak baliagarriak dira funtzio neuromuskularra testatzeko zelai test isoinertzial garrantzitsuak dira (Setuain et al., 2019; Twist & Highton, 2013). Honetarako Setuain eta kolaboratzaileek (2015) aipatu zuten sentsoreen bitartez, zelai testak neurtu daitezkeela.

Indarrarekin bezala, erresistentzian ere LTak eta ZTak ditugu. Laborategiko testetan murgilduz, modurik zuzenena da nahi ditugun parametroak neurtzeko inguruko aldagai guztiak neurtzen ditugulako (Mezzani, 2017). Aurretik esan bezala, laborategiko testak, oso deserosoak dira eta adherentzia gutxi lortzen da jokalariekiko. Baina halan eta guztiz ere, laborategietan gaitasun aerobikoa neurtzeko modurik zuzena da, VO_{2max} balore zehatzak lortzeko. Test maximal hauek protokolo zuzenak edo aldizkakoak izan daitezke, hau da, karga ratioa progresiboki handitzen edo blokeka handitzen joanez (Mezzani, 2017). Bestalde, laborategietako testen bitartez, odoleko gas eta laktako neurketak egin daitezke gorputzaren base azidoa baloratzeko (Indrasari et al., 2019). Baina, LTak oso garestiak dira, eguneroko entrenamendu normalen ohituretan interferentziak sortzen ditu eta ez dira bat ere praktikokoak (Vesterinen et al., 2016).

Behin LTak azalduz, ZTetan sartuko gara, praktikotasun gutxienetik praktikotasun handienara testak ordenatuz. Maximal Lactate Steady State (MLSS) zientzialari askoren aburuz erresistentzia errendimenduaren seinalearen gold standard-a da eta MLSSaren balorazioa 3-6 egun bitarteko lan kargen testak beharrezkoak dira, egun separatuetan (Garcia-Tabar et al., 2019). Laktako atalasa (LT) ikertua izan da gaitasun aerobikoa determinatzeko kriterio estandar moduan (Garcia-Tabar & Gorostiaga, 2018). Laborategiko VO_{2max} testak bezala, MLSS-aren prozedura luzea dela eta, hau soilik ikerketa arloan erabiltzen da. Beraz, egun askotako testatze prozedura laburtzeko asmoarekin, metodo ugari daude odol laktako kontzentrazioa (BLC) (LT eta MLSSa) estimatzeko egun bakar batekin test inkrementala eginez gero, bai odol laktatoarekin erlazionaturiko atalasa zein arnas trukeen atalasetan oinarrituta (Garcia-Tabar & Gorostiaga, 2018). Bestalde, Llodio eta kolaboratzaileak (2015) saiatu ziren MLSSaren abiadura (MLSSv) estimatzen, eta Abiadura Aerobiko Maximoaren (VAM) eta BM_{max} -ren %80an korrelazio altua zegoen MLSSv-arekin (Llodio et al., 2015). Baina halanda guztiz ere egun bat baino gehiago behar dute testatzen, praktikotasuna kaltetuz.

Beraz, beste hainbat test daude, egun bakar baten egin daitezkeenak, praktikotasuna zein merkeagoak direnak. Gaitasun aerobikoa neurtzeko erabiltzen den ZT eroso bat, multistage 20 m shuttle run testa da Leger eta Lambertek (1982) sortua; test hau test progresibo maximal bat da eta hamaika laguni aldi berean material minimoarekin (txilibitu, metro eta kronometroa). Testa bukatzean lortutako amaierako abiadura maximoa VO_{2max} -arekin

korrelazio altu bat dago ($r = 0.84$), beraz hau ikusita, Leger eta Lambertek (1984) erregrazio ekuazio bat proposatu zuten VO_{2max} balorea estimatzeko (Impellizzeri et al., 2005). Test ez-jarraituak, edo intermitente batzuk ere egon badaude. Nola ez, Bangsboren (1994) Yo-Yo intermittent recovery (YYIR1) test-ak askuntza garrantzitsua jaso du azken urteetan futbol munduan (Impellizzeri et al., 2005). Test honen helburua 20 m-tako korrikaldia abiadura zehatz baten eta 10 s-tako atsedenarekin egitea da; maximora heldu arte. Abiadura progresiboki mailaka igotzen joango da. Krstrup eta kolaboratzaileek (2003) Yo-Yo test honen baliagarritasuna eta fidagarritasuna aztertu zuten. Honen aurka, Krstrup eta kolaboratzaileek (2003) azaldu zuten gizonezko elite jokalariek YYIR1-ean 1080 m-ko distantzian, $\sim 4 \text{ mmol}\cdot\text{L}^{-1}$ odoleko laktato kontzentrazioa (OBLA) zutela (Krstrup et al., 2003). Horrela, YYIR1tik estimatutako VO_{2max} -a behar bada parte hartzaileen gaitasun fisiko baxua edo moderatua baldin bada ez da zehatza izango, erresistentzia aerobikoaren gaitasun terminoetan oinarrituz; testaren portzentai altuan kontribuzio anaerobiko altu baten bidez egiten bai dute (Schmitz et al., 2020). Konklusio hau ere linealki parekidea da VO_{2max} ren estimaziorako emakumezkoen futbol jokalarietan (Martínez-Lagunas & Hartmann, 2014). Besteak beste, Intermittent Fitness Test-a (30-15_{IFT}) Buchheit-ek proposatu zuen beste erraminta bezala, honen deskribapena ikerketa honen metodologian azalduzik dago. Buchheit-ek (2010) argitaratu zuen artikuluan ikusita; 30-15_{IFT} lorturiko abiadura maximoa (VIFT) baloreei erreparatuz, desberdintasunak ikus daitezke kirol ezberdinen zein gizon eta emakumezkoen artean *Irudia1* (Buchheit, 2010).



Irudia 1. V_{IFT} balorakastertuz, desberdintasunak ikus daitezke kirol ezberdinen zein gizon eta emakumezkoen artean (Buchheit, 2010).

Italian aldiz, Mogroni testa erabiltzen da jokalarien gaitasun aerobikoa neurtzeko (Sirtori et al., 1993). Protokolo submaximala da, Jacobs, Sjödin eta Schelaren (1983) ikerketan inspiratua zegoena, OBLA eta odol laktako kontzentrazioaren arteko korrelazio bat erakuzten zuen bizikletan 6 min seriean 200 W tara. Aldi berean Sirtori eta kolaboratzaileek

(1993) korrelazio signifikatiboa erakutsi zuten ($r = 70.94$) 6 min-ko korrikaldian 13.5 km/h abiadura edukitako odoleko laktato kontzentrazio eta OBLA mailan eskuratutako abiadura artean (Impellizzeri et al., 2005). Korrelazio horretan oinarrituz autoreek determinatu zuten erregreziio ekuazio bat OBLA mailari egokitzen zaion abiadura zehazteko futbol jokalarietan. Sirtori eta kolaboratzaileen (1993) ikerketaz gain ez dago beste artikulurik test honen fidagarritasunaren baliagarritasunaz hitz egiten duenik (Impellizzeri et al., 2005). Metodo odoltsuak sahiesteko (eta hauek dakartzaten deserosotasun guztiak eta arriskuak ere sahiesteko), eta baita ere BMmax-ak neurtzeko eta entrenamenduaren kontrol hobea edukitzea, gure klubean Yo-Yo maximo testa erabili izan da orain arte (Arregui-Martin et al., 2020). Aldiz aurrean, teknikari berriak direla eta, 30-15_{IFT}-a ezarri dute emakumeetan. Dena den bien arteko harreman oso estua izaten da (Buchheit & Rabbani, 2014).

Aurreko urtean, nire praktiketako gizonezko futbol harrobiko futbol talde batean oinarritutako entrenamenduek, joku murriztuetan (SSG) oinarritua, denboraldi erdiak gizonezko futbolariengan sortutako egokitzapen fisikoen analisia aurrera eraman zen (Arregui-Martin et al., 2020). Ikerketa honetan baieztatu zen bezala, denboraldia aurrera zijoan moduan, behe gorputz ataleko potentzia adierazleen baloreak mantendu edo okertzen ziren, baina jokalarien gaitasun aerobikoa hobetzen zen entrenamendutako eta jokatutako minutuen eragina zela eta. Kontutan hartuta gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasun fisikoak (aurretik azaldu bezala), harrobi berdineko; eta beraz, futbol entrenamendu filosofia berdineko, nesken taldean futbol entrenamenduak eragiten dituen efektuak gaitasun fisikoetan aztertzea dago. Beste alde batetik ere, nesketan gizonezkoekin bezala, antzeko indar testak egin zituzten; esate baterako, Vertical Unilateral Drop Jump (VUDJ), Vertical Unilateral CounterMovement Jump (VUCMJ) eta Cross-over Hop Test (CHT) inplementatu dira testing saioetan infragorri izpien bidezko sistema batez neurtuak ziren (Optojump Next System; Microgate, Italia). Arregui-Martin eta kolaboratzaileek (2020) gizonezko lanean agertzen den antzera, emakumezkoetan berdina gertatzen den ere ikustear dago oraindik.

Erresistentziari dagokionez, azken urte honetan erresistentzia testa aldatu egin dute nesken talde honetan. Futbol jokalarien intentsitate altuko abiadura neurtzeko test ezberdinetan oinarrituz, Yo-Yo Intermittent Recovery Test Level 1 (Yo-YoIR1) behar bada futbol munduan erabilena da (Buchheit & Rabbani, 2014) eta hau da gure taldean orain arte erabiltzen zena (Arregui-Martin et al., 2020). Yo-YoIR1-ak intentsitate altuko korrikaldiarekin harremanak ditu, batez ere partiduekin eta entrenamenduarekiko espezifikoa da (Bangsbo et al., 2008). Baina 30-15_{IFT}-arekin alderatzen badugu, honek ere

intentsitate altuko abiadura ebaluatzen du, baina Yo-YoIR1-arekin konparatuz, VIFT-a entrenamendu preinskipziorako aproposa da (Buchheit, 2010).

Beraz, lan honen helburua da denboraldi erdi batek, emakumezko futbolariengan sortzen dituen egokitzapen fisikoak aztertzea, hala nola BGAI edota gaitasun aerobikoan.

Metodologia eta materiala

1. Partehartzaileak

Hamasei elitezko emakume futbol jokalaria [19.9 ± 3.3], jokalaria gazteenak hamasei urte eta nagusienak hogeita hiru urte edukiz, bigarren mailan “Reto Iberdrola Norte” ligan jokatzeko dutenak. Jokalarien duten futbol ibilbidea ikusiz, batzuetan beste 4 ± 3 urte daramatzate Athletic Clubean jokatzeko, gutxienez aurtengo denboraldia soilik eta gehiengoak aldiz, zazpi urtez. Futbolarien jaioterriei dagokienez, gehienak Euskal Herrikoak dira, hamar bizkaitar, gipuzkoar bat, arabatar bat eta bi nafartar; alemaniar bat eta Errioxako jokalaria bat izan ezik. Ikerketa honetarako bai partehartzaile guztiak zein beraien gurasoak informatuak izan ziren eta idatziz onartu zuten Helsinki-ko (2013) deklarazioan, eta etika irizpideak ezagutu zituzten Sport and Exercise Science Research-etik (Harriss & Atkinson, 2020); *eranskina 1* jokalaria guztiek sinatu behar zuten.

Reto Iberdrola Norte ligan zentratuz, Espainiar emakumezko futbolaren bigarren mailak duen izena da; liga honen gainetik “Primera Iberdrola” liga egonik. Bigarren maila honetan hogeita hamasei talde daude baina bi liga ezberdinetan, “Reto Iberdrola Norte”, jokalaria hauek jokatzeko dutena; eta “Reto Iberdrola Sur”. Liga bakoitzean hamasei talde daude eta iparraldeko ligan Euskal Herriko lau futbol talde daude. Gabonetako denboraldi honen (2019-2020) geldialdira arte, Athletic-eko jokalariek hamalau partidu ofizial jokatu zituzten, bederatzita partidu irabaziz, hiru berdinduz eta bi galduz; eta hogeita hamar puntu eskuratu zituzten lehenengo postuan kokatuz.

Entrenamenduei dagokionez, astean lau edo bost entrenamendu egiten zituzten, aurreko eta ondorengo partidua noiz jokatu zuten, jokalarien nekea edota espazioen erabilgarritasunaren arabera. Lehiaketetan oinarrituz, aurrendenboraldian sei lagunarteko jokatu zituzten, astean partidu bat edo bi jokatu; lehiaketa ofizialean aldiz astero partidu ofizial bat jokatu zuten.

2. Ikerketa diseinua

2019/2020-ko aurrendenboraldian, test zehatz batzuk praktikan jarri ziren (T1). Test batera hori, errendimendu eta antropometriaren oinarritutako test multzoa zen. Errendimenduaren arloan bi multzotako testak egin zituzten, indarra zein erresistentzia baloratzeko testak. Behin testen emaitzak eskuratu, “Reto Iberdrola Norte”-ren gabonetako geldialdiraino jokatuak minutuak bildu ziren. Datu hauek, entrenamendu zein partidu guztietan eskuratu ziren hogeita bat asteetan zehar; entrenaturiko zein jokatuak minutuen datuetan, atezainak kendu ziren, datuak ez distortzionatzeko. Hogeita bat asteko entrenamendu periodoan zehar datuak bildu ziren, aurrendenboraldian (1-6

asteak) zein denboraldiaren lehenengo itzulira arte (7-21) lortutakoak ere. Behin hori lortuta, erresistentziaren re-test-en datu berriak bildu ziren ($T2_{\text{Erresistentzia}}$) abenduak 28an eginikoa eta aurrendenboraldian egindako test berdina eginez. Ondoren otsailak 14an indarra baloratzeko re-test-a egin zituzten ($T2_{\text{Indarra}}$). Aurrendenboraldian jokalariek lagun arteko 6 partidu jokatu zituzten astean bat edo bi partidu jokatuz. Ondoren, denboraldian zehar astean partidu bat jokatu zituzten guztira, 14 jardunaldi jokatuz, irailak 8tik hasita eta abenduak 15ra arte. Lan honetarako, bi ikerketa desberdin egin genituen 1) Indar testen ($T1$ eta $T2_{\text{Indarra}}$ -ren) arteko korrelazioak aztertzea eta 2) hogeita bat entrenamendu eta lehiaketa asteen eraginak $T1$ eta $T2_{\text{Erresistentzia}}$ emaitzetan zeintzuk diren aztertzea.


Ikerketa behaketa longitudinal ikerketa bat izan da. Ikerketa honetarako entrenamenduaren edukiak ez dira moldatuak izan. Behaketa ikerketek nahaste faktoreengan kontrol mugatua daukate, eskuhartze ikerketekin alderatuz, eta inoiz ez ezingo dira kausa efektuak ezarri. Hala ere, ikerketa behaketatik ezingo da entrenamenduen eraginkortasunen inguruko adierazpenik egin, beraiek hurrengo hau egin dezakete: 1) “mundu errealean” dituzten erabiliak eta praktikaren informazioa azaldu, 2) entrenamendu onurak eta arriskuen seinaleak antzeman, 3) hipotesiak sortzen lagundu ondorengo ikerketetan testatuak izateko eta 4) datuak biltzea entrenamendu pragmatiko gehiago planifikatu ahal izateko. Bukatzeko, 2014ko Cochrane Collaboration-ko txosten batek, behaketa ikerketek bideratutako zorizko kontrol ikerketen antzeko emaitzak lortzen dituela erabakira heldu zen (Anglemyer et al., 2014).

3. Testatze prozedura

Testak berriz, aurrendenboraldian eginiko testa ($T1$), gabonetan eginiko erresistentziaren re-test-a ($T2_{\text{Erresistentzia}}$) eta otsailak 14an eginiko indarraren re-test-a ($T2_{\text{Indarra}}$). Testak bi multzo handi ezberdinetan banatu ziren, jauzien testak eta erresistentzia testa. Uztailaren 24an entrenamenduak hasi ziren eta uztailak 29an jauzien testak egin zituzten, ondoren azalduak izango direnak. Hurrengo astean, abuztuak 5, erresistentziako testa egin zuten. Gabonetako teste dagokienez, $T2_{\text{Erresistentzia}}$, abenduak 28an 30-15_{IFT}-a egin zuten eta $T2_{\text{Indarra}}$ otsailak 14an. Ikerketa hau behaketa ikerketa denez eta beraz esku-hartzerik ez duenez, testak entrenamendu programan integratu ziren taldeko profesionalen zehaztutako datetan. Hau da, benetako mundu erreala (entrenamenduak) ez zen aldatu ikerketa honen helburuengatik. Test saio bakoitzeko jokalariek uko egin behar zuten 24 ordu lehen ariketa fisiko kementsua egiteari eta testa hasi eta 2 ordu arinago gutxienez ezin zuten ezer jan. Gainera, ezin zuten kafeinarik ezta alkoholik edan testatze egunetan zehar. Testatze saioak eremu eta eguneko ordu berdinean egin zituzten erritmo zirkadianoaren aldakortasuna gutxitzeko.

➤ Drop Jump, ContraMovement Jump eta Cross-over Hop Test

Jauzien testatzea, hiru jauzi ezberdinez osaturik zegoen *Irudia 2* agertzen den moduan: VUDJ, VUCMJ, eta *Irudia 3* CHT. Jauzi mota bakoitzean hanka bakoitzarekin bi saiakera zeuzkaten. Partehartzaileak galdetuak ziren zein hankarekin jauzi altuagoa egiteko gai ziren definitzeko, beraien hanka dominanteaz galdetu beharrean. Atsedenerako hogeita hamar segundu zituzten hanka berarekin jauzi berdina egiteko; minutu bat aldiz, jauzi mota ezberdinen artean. Jauzien intentsitatearekin batera inolako lesiorik saihesteko, exekuzio ordena moldatua zegoen; jauziak errazenetik konplexuenera bideratuta zeuden. Jauzi bakoitzean jokalariei saiakera maximoa egiteko animatu zitzairen



Irudia 2. Setuain autorearen baimenareki; goiko irudi grafikoan Drop Jump-aren (DJ) abiadura bertikalak denborarekiko duen erlazioa ageri da. Beheko irudi grafikoan aldiz, CounterMovement Jump-ena (CMJ).

VUDJrako kirolariak 20cm-tako kutxa baten gainean jartzen ziren eta hanka batekin kutxatik jaistean jauzi bertikal unilateral bat burutu behar zuten. Jauzi honetarako, jokalariek infragorri izpien bidezko sistema batez neurtuak ziren (Optojump Next System; Microgate, Italia).

VUCMJrako aldiz, jokalariei kontramugimendu jauzi unilateral bat egitea esan zitzairen. Horretarako, hanka guztiz estentzionatuta edukitzetik belaunaren $\approx 90^\circ$ flexiora jaitsi behar ziren, ondoren mugimendu kontzentriko bat eginez, altuera maximoko jauzia egin behar zuten. Hegaldi fasearen eta kontaktu iraupena aurretik esandako infragorri izpien bidezko sistema batez neurtuak ziren. Jauzi bakoitzean jokalariei animatzen zitzairen jauzi maximoa egiteko.

CHTan berriz, kirolariak hiru jauzi gurutzatu unilateral egin behar zituzten. Horretarako lerro zuzen batean metro baten laguntzaz, hiru jauzi gurutzatu egin behar zituzten hanka berarekin (*Irudia 3*) eta beti ere oreka mantenduz. Helburua ahalik eta distantzia horizontal gehien betetzea da, eta hirugarren jauzian puntaren kokapena zegoen puntutik hasierara zegoen distantzia neurtzen zuten metro baten bitartez.


Cross-over Hop for Distance



Irudia 3. Cross-overHop Test-a.

➤ Intermittent Fitness Test

Errendimendu fisikoko testak egin baino lehen, 10 minututako beroketa estandarizatu bat burutzen zuten lesionatzeko arriskuak gutxitzeko. Erresitentzia ere testatu zuten, 30-15 Intermittent Fitness Test-a (30-15_{IFT}) erabiliz. 30-15_{IFT}a hogeita hamar segundotako korrikaldia hamabost segundotako atseden pasibo periodoarekin egin zen. Hasierako abiadura 8 km/h-takoa zen lehenengo hogeita hamar segundotan korrika eginez eta berrogeita bost segundoro abiadura 0.5 km/h igotzen da. 30 segundoko korrikaldi periodoa egin beharreko distantzia zehatzen kalkulua egiterako orduan kontuan hartuz biratzeko esfortzua handitzen zihoala korrika abiadura igotzen zen bitartean. Buchheit-ek (2008) 0.7 segundoko balio enpirikoa lortu zuen, hogeita hamar segundoko korrikaldi periodoko norabide aldaketa bakoitzeko. Balio enpiriko hau hobeto azaltzeko, adibidez, 11.5



Irudia 4. Intermittent Fitness Test-a (30-15_{IFT}) irudikatua, espazio osoa eta lerroen arteko distantziak zehatzuz.

km/h-an, korrikalari batek 96m beteko zituen 30 segundotako korrikaldi lineal batean, baina distantzia bera betez baina 40 m-tako espazio tartean, 2 norabide aldaketa egin beharko lituzke 2×0.7 segundo behar izanik, zeinek 91.6 metrotako distantzia beteko zituen balio hau erabiliz. Jokalariak korrika egin behar zuten aurrera eta atzera berrogei metroz banaturik zegoen eremuan, aurretik grabaturiko pitidoen erritmoa jarraituz abiadura zehatza jarraitzen laguntzen ziena; mutur bakoitzean 3 m-tara sartzean edota erdiko marra zeharkatzean pitidoak abisatuz (Irudia 2). Hamabost segundutako atseden periodoaren bitartean, sujetuak norabide berdina jarraitu behar zuten hurbilen dagoen marrara arte (erdiko marra edo muturretako marrarik gertuenera) zeinetan hurrengo fasea hasiko den. Jokalariak animatuak izan ziren ahalik eta fase gehien burutzen. Testa bukatu zen jokalari bakoitza inposaturiko erritmoa jarraitu edo 3 aldiz pitidoa jotzen zuen momentuan 3 m-tako eremu ingurura heldu ezin zenean. Azkeneko fasean lorturiko estadia erregistratuko da hurrengo datuen analisirako (Buchheit, 2008). Estadio hori kirolariak lortu duen distantziarekin erlazionatuta dago. Horrekin, VO_{2max} -ren estimazioa egin daiteke hurrengo formularekin: $VO_{2max} (ml/kg/min) = 28'3 - 2'15 G - 0'741 A - 0'0357 W + 0'0586 A \cdot V_{IFT} + 1.03 V_{IFT}$; G baloreak generoari egiten dio erreferentzia (emakumea = 2; gizona = 1), A adinari, W pisuari eta V_{IFT} proban eskuratutako bukaerako abiadura maximoa (Buchheit, 2010).

4. Datuen bilketa

Lehen esan bezala, "Reto Iberdrola"-ren gabonetako geldialdia baino lehen jokotutako minutuen datu bilketa egin zen, bai entrenamenduetan zein partiduetan. Guztira, 63.5 ± 29.5 entrenamendu burutu zituzten, gutxienak 34 eta gehienak 93, eta 20 partidu burutu zituzten.

Entrenamenduetan, minutuak aktibazioa hasten zen momentuan kontaktzen hasten ziren eta azkeneko ataza amaitzen zen momentuan minutuak kontaktzen husten ziren. Beti ere, metodologia berdina egiten zen. Horretaz gain, entrenamendu eraginkorrak hartzen ziren kontuan, Global Positioning System-a (GPS) Apex® GPS system (STATSports™, Newry, N. Ireland) jartzen ziren guztietan; hau da, batzuetan psikologoarekin edo lesionatua egonez gero fisioarekin entrenamendu saioak zituzten, baina horrek ez ziren kontuan hartzen.

Partiduetan aldiz, entrenamenduetan bezala GPS-a jartzen zuten momentutik, beroketa hasten zenetik minutuak kontaktzen hasten ziren. Bestalde, hasierako hamarkakoan irteten ez ziren jokalaria, ordezkoak, berotzen hasten zirenean minutuak kontaktzen hasten ziren ere. Minutuak kontaktzen hasten zen, partidua bukatzen edo ordezkatua izaten zen momentuan. Jokalarien minutuak erregistratzeko, ez da inongo filtrorik erabili; hau da, ez da alde batera utzi x minutura heldu ez diren jokalaria, etab.

5. Estatistika

